



# PUNTU ITSUA

Arkitektura: film mintzairak

2013ko azaroaren 12tik 16ra arte

# Aurkezpena

Gizaki primitiboak, babesik gabe, arriskuan eta biluzik, bere aurkari naturalak menperatzeko abilezia izan zuen. Fortifikazioaren zientziak inflexio-puntua ekarri zuen natura menperatzeko prozesuan. Lewis Munford-ek dioen bezala, harresiek hiria eta nekazaritza-eremuaren arteko harremanen funtsezko aldaketa erraztu zuten, barrukalde eta kanpoaldearen artekoa. Hiriaren babesean norbanako eta taldeen arteko jarduerak eta harremanak errazten ziren neurrian, kanpoaldearekin, hiriko mugetatik kanpo zegoenarekin harremanak irrazionalak, etsai-girokoak bihurtu ziren. Argudio horrek, larriagotuta, gaur egun arte iraun du, non habitat-en suntsipena eta baliabide naturalen ustiapen azeleratua arazo global gisa eta sistema ekonomiko kapitalistak bultzatutako pilaketa- eta desjabetza-dinamiketarik bereizezin gisa ulertzen den.

Harresiak itxura desberdinak hartzen joan dira, arkitektura berriak, logika materialak eta banakariak mugatuz. Kapitalismoaren garapenak printzearen ondasuna ondasun nazional gisa ulertzea eskatzen zuen, bestelako aktore ekonomiko batzuk ere tartean sartuz: merkataria, bankaria, manufaktura-ekoizleak. Prozesu hori hiriak-Estatuak Estatua-naziorantz, hedapen kolonialerantz, naturaren menperatze eta ustiapenerantz, edo itsas merkataritzaren garapenerantz egindako desplazamenduarekin batera gertatu zen. Aldi berean, burgesiak egindako aliatuen bilaketaren ondorioz, espazio fortifikatua handitu behar izan zen; hiria babesten

zuten harresietatik askoz lurralde zabalagoak mugarrizten dituzten mugetara.

Bestalde, aro modernoaren konfigurazioak “gerra totala” bezala ezagutzen dena ekarri zuen, hau da, indarrean dagoen legeriaren aurrean eteten ez dena eta gerra eta bakearen arteko bereizketa bera ere krisian jartzen duena. Hannah Arendt-ek adierazi duen moduan, “...Bigarren Mundu Gerra amaitzerakoan, gauza jakina zen biolentzia-tresnetan emandako aurrerapenen ondorioz “gerra kriminalak” saihetsezinak zirela. Soldadu eta zibilak, armada eta zibilak eta jomuga militar eta hirien arteko bereizketa, non Hagako Hitzarmenak funtsatzen zituen gerrako krimenen definizioak, zaharkitua gelditu zen aurrerapen horiengatik. Ondorioz, egoera hartan, gerrako krimen moduan behar militarretatik kanpo zeudenak soilik hartu ziren”.

Praktika horrek, gaur egun, “eraso prebentiboak” edo “gerra ideologikoa” bezalako kontzeptuak sartzen dituen hizkuntzaren bitartez jarduten du. Eufemismo eta figura erretoriko horiek ez genituzke beste eremu sentzorial batzuetan gertatzen denetik bereizi behar, hala nola zinean edo ikusentzunezkoetan. Judith Butler-ek dioen moduan, “soinua eta irudia errealtate batean sartu eta bertan parte hartu arazteko erabiltzen dira”.

Zentzu horretan, natura inguratzen duten galderak eta gerra egoeretan erabiltzen

diren irudiak eta eragiten dituzten emozioak askotarikoak dira (politikaren estetizazioa, suntsipena ikusteak eragiten duen gozamena...), eta guztioi dagokigun arazo politiko gisa eztabaidatu behar ditugu. Izan ere, fortifikazioak bezala, orain horiek mugatzen eta urbanizatzen dute –industrialki- eremu fisiko zein irudizkoa.

Edizio honetan deitu ditugun autoreek, prozesu honetan zilegitasun gabe gelditu diren hainbat ikuspuntu ikustatzea ahalbidetzen diguten eduki narratibo eta bisualak proposatzen dizkigute. Galdutako errealtate gisa funtzionatzen duten “eremu itsuak” izan arren, garaipen-kontakizunetik urruntzeko gai izan dira, hura sortzen den eremu epistemologiko eta afektiboko partaide izan gabe, hain zuzen, sortzen duenaren eta sortua denaren arteko gatazka eta haren ondorio biolentoak arautu, zigortu, bitartekotza egin, itundu eta naturalizatzen dituen sistema politiko eta ekonomikoa onartu eta etsita bertan bizitzeko prestatzen gaituena.

Arkitektura: Film Mintzairak BNV produkzioak, Cristina Enea Fundazioak, DSS2016 Fundazioak eta Tabakalerak zuzendu, koordinatu eta ekoiztutako proiektua da, EHAEO Gipuzkoako delegaritza, Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren (EHU-UPV) eta National Geographic-en laguntzarekin.

*Arkitektura: film mintzairak. Puntu itsua Bake Tratatua*ren Aliantzetako bat da, Donostia, 2016ko Europako Kultur Hiriburua-ren proiektua, eta Pedro G. Romerok komisariatutakoa.

# 1. saioa

2013ko azaroak 12 eta 13

Azaroak 12, asteartea

19:00 Hitzaldia

**El precio de endulzar el café**

Peio Aguirre

20:00 Proiektzioa

**Queimada**

de Gillo Pontecorvo, 1969. 112'

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Azaroak 13, asteazkena

10:00 - 14:00 Tailerra

Peio Aguirrek zuzenduta

Non: Tabakalera

# 3. saioa

2013ko azaroak 14 eta 15

Azaroak 14, osteguna

19:00 Hitzaldia

**Historias de Oriente Medio**

Catherine David

20:00 Proiektzioa

**The anabasis of May and Fusako Shigenobu, Masao Adachi and 27 years without images**

de Erik Baudelaire, 2011, 66'

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Azaroak 15, ostirala

10:00 - 14:00 Tailerra

Catherine David-ek zuzenduta

Non: Tabakalera.

# 2. saioa

2013ko azaroak 13 eta 14

Azaroak 13, asteazkena

19:00 Hitzaldia

**¿Archivos de Guerra?**

Philippe Artières

20:00 Proiektzioa

**Restrepo**

Tim Hetherington eta Sebastian Junger, 2010. 93'

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Azaroak 14, osteguna

10:00 - 14:00 Tailerra

Philippe Artières-ek zuzenduta

Non: Tabakalera

# 4. saioa

2013ko azaroak 15

19:00 Hitzaldia

**Gizakia eta haren berezitasunak aro nuklearrean: terra incognita**

Elena Martínez Rubio

20:00h Proiektzioa

**Cartas de un hombre muerto**

Konstantin Lopuschanski, 1987. 88'

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

# Ekintza paraleloak

**Mafrouza**

2013ko azaroaren 12tik 16ra arte

3. saioaren osagarri eta hedadura gisa Emmanuelle Demoris-en Mafrouza proiektatuko da, modu autonomoan ikus daitezkeen 5 ataletako pelikula dokumentala.

Emanaldiak goizez eta arratsaldez

(10.00-12.00 / 16.00-18.00 gutxi gorabehera)

Azaroak 12, asteartea

**MAFROUZA – OH NIGHT ! (1. zatia – 2:18)**

Azaroak 13, asteazkena

**MAFROUZA/HEART (2. zatia – 2:34)**

Azaroak 14, osteguna

**WHAT IS TO BE DONE? (3. zatia – 2:32)**

Azaroak 15, ostirala

**THE HAND OF THE BUTTERFLY**

**(4. zatia – 2:22)**

Azaroak 16, larunbata

**THE ART OF SPEAKING (5. zatia – 2:35)**

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea



**Korridoreak: itsu-itsuan lurraldean barrena**

2013ko azaroak 16, larunbata

10:00 Irteera

**Korridoreak: itsu-itsuan lurraldean barrena**

Irteera Urumeatik Ibon Salaberria eta Koldo Telleriarekin\*

Non: Tabakalera aurrean

\*Irteera hau Ibon Salaberriak eta Koldo Telleriak hiriak bere mugekin ezartzen dituen harreman gatazkatsuen inguruan Arkitektura Eskolan egingo duten tailerraren emaitza da.





## 1. saioa

2013ko azaroak 12 eta 13

# El precio de endulzar el café

Peio Aguirre


Kapitalismoa, mendebaldeko gizartearen kontsumoan irabazi edo erosotasun txiki eta hautemanezinak lortze aldera, gizakiari eta naturari eragiten dien ekintza suntsitzailen arrastoak ezabatzeagatik bereizten da. XIX. mendean, kapitalismoaren garapena, Inperio kolonialaren hedapenarekin batera gertatu zen. Potentzia kolonialen interes ekonomikoak lurralde "berrien" aurkikuntzan eta usufuktuan oinarriturik zeuden. Alde edo parteen guztiarekiko harremanek bereizten dute kapitalismoa. Gaur egun globalizazioa deitzen diogunak, hau da, leku zehatz batean esku-hartzeak osotasunaren bilakaeran eragin dezakeen prozesuak, XIX. mendean izan zuen goren unea. Itsasoa nazioarteko marketinerako bidea bihurtu zen. Esklabotasuna haren lanindarra. Sua erosketarako txanponik gogokoena.

Saio honek *Queimada* bezalako pelikula batek materialismo historikoaren oinarri nagusiak hedatzeko "genero" zinematografikoa nola erabiltzen duen azaltzen du. Modu arruntean

esaten den bezala, historia errepikatu egiten da. Hala ere, historiatik ikasteko, errepikapen horren adibideak kultura herrikoiki eta masen kulturaren barruan ikustea garrantzitsua da. Pelikula hau fikziozko kontakizuna da, konkista, esplotazio eta erresistentziako kasu errealetan oinarritutakoa. Gure begi eta kontzientzia aurrean irudikatutako Historia.

## Peio Aguirre

Idazlea, arte-kritikoa eta komisario independentea, Donostian bizi da. Testuak eta artikulua argitaratu ditu egunkari eta aldizkari askotan, nazionalak zein nazioartekoak; *La Vanguardia*, *Mugari*, *Flash Art*, *Afterall*, *A Prior Magazine*, *A-desk*, *e-flux Journal*... Komisarioa izan da hainbat erakusketatan, hala nola, *Etorkizuneko Arkeologiak* Bilboko Rekalde aretoan, eta *Forma eta Unibertsoa* Nestor Basterretxearen atzera begirako erakusketa Bilboko Arte Ederretako Museoen. Artista-liburuen editore independentea da CO-OP zigiluarekin. *Crítica y metacomentario* blog-ean idatzi eta argitaratzen du, <http://peioaguirre.blogspot.com>



## 1. saioa

2013ko azaroak 12 eta 13

Azaroak 12, asteartea

19:00 Hitzaldia

El precio de endulzar el café

Peio Aguirre

20:00 Proiektzioa

Queimada

de Gillo Pontecorvo, 1969. 112'

*Queimada*-k Sr. William Walker-en harriabar edo zoritxarrak kontatzen ditu. Walker Koroaren aldeko iraultza hasteko helburuarekin Britania Handiko Inperioak Karibeko kolonia batera bidalitako agente bikoitza da. XIX. mendeko une zehaztugabe batean girotuta dago, eta pelikula kolonizazio inperialaren eta hortik datozen erresistentzia eta nazio askapeneko prozesuen alegoria da. XIX. mendean girotua egon arren, pelikularen mezua 1960. hamarkadako eztabaida politikoaren inguruan kokatu behar da, bereziki artea eta aldaketa sozialeko edozein prozesutan intelektualek duten funtzioa lotzen dituen eztabaidan. Aldi berean, *Queimada*, historia-ikasgai zoragarria da, Inperialismoa eta haren tresna nagusiarri buruzkoa: gerra. Hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan zine politiko edo militanteak izan zuen garrantziaz jabetzeko dokumentu baliotsua. Gillo Pontecorvo italiarrak sinatutako pelikula da *-La Batalla de Argel* (1966) eta *Operación Ogro* (1979) pelikulen zuzendaria-.

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Azaroak 13, asteazkena

10:00 - 14:00 Tailerra

Peio Aguirrek zuzenduta.

Parte hartzeko aurrez izena eman 943453526 telefonoan edo e-mail honetan: [cristinaenea@donostia.org](mailto:cristinaenea@donostia.org)

Non: Tabakalera



## 2. saioa

2013ko azaroak 13 eta 14

# ¿Archivos de Guerra?

Philippe Artières

XX. mendeko gerretatik zantzu ugari gordetzen dira: objektuak, dokumentu militarrik, txostenak, arropak eta paper-sortak; baita gutunak, postalak, egunkari intimoak ere, soldaduek egindakoak.

1914ko trintxeretan edo Normandiako lehorreratzean zer gertatu zen badakigu. Hala ere, joan den mendeko 90. hamarkadatik aurrera, gure gerra modernoak, Kuwait, Afganistan edo Irak-eko gerrak, fikziozkoak dira, isilak, aurpegirik gabekoak. Zer esan nahi du ikusezintasun horrek? Zeintzuk dira artxibo alternatiboak? Eta zinea eta fikzioa gure gerra modernoaren artxiboa badira? Eta gerraren irudikaria bada orain artxiboa osatzen duena?

Hor dago borrokaren testuinguru afektibora gerturatzeak izan dezakeen interesa. *Restrepo*-k, Tim Hetherington eta Sebastian Junger-en dokumentalak, Afganistango gerran egon ziren denbora (urte eta piko) aztertzen du; begirada han errekrutatuta zeuden soldadu iparramerikarrei jarri diete. Amerikako soldadu bat Korengal harana bezalako leku arriskutsu batean nola sentitu

daitekeen jasotzeko ahalegina; balio estrategikorik gabeko lekua, inbasioaren zentzuari ezer aportatu ez ziona eta zenbat afganiar hil ziren eta horietatik soldadu talibanak zenbat izan ziren sekula zehaztu ez zena. Dokumentalari oso tratamendu esperimentalak eman diote, gerra-mekanismoen "intimitateetatik" eraikitzen den tresna gisa, eta horri esker eredu paradigmaticoa dugu, egiazkoa dena proiektatzerakoan dilema moralak eragiten dituzten harreman gatazkatsuak ulertzeko.



## Philippe Artières

Historialaria (doktorea Université Denis-Diderot, Paris 7), CNRS-ko ikerlaria eta Michel Foucault Zentroko presidentea. 15 urtetan XIX. eta XX. mendeetako idazketa-modu "arruntan" inguruko lanak egin ditu. Idazketa askapen-jarduera gisa ulertuta, Artières-ek, idazketa, boterea-ezagutza harremanetan artikulatuta dagoela erakutsi du, debekatu edo galarazi beharrean, modu jakin batean nola ahalbidetzen duten. Idazketari buruzko Foucault-en lanak berregitearekin, Artières-ek norbanakoen idazketa-gailuak aztertu ditu, eta baita atzemate horren idazketa-erresistentzia moduak ere. Bere ikerketek filosofia, literatura eta antropologia kriminala zeharkatzen dituzten ardatz tematikoak azaltzen dituzte. Gainera, artxiboei eta horiek gizarte garaikideetan dituzten funtzio sozial, politiko eta sinbolikoei buruzko hausnarketa historikoa ere berriz sartzen du.

## 2. saioa

2013ko azaroak 13 eta 14

Azaroak 13, asteazkena

19:00 Hitzaldia

¿Archivos de Guerra?

Philippe Artières

20:00 Proiektzioa

Restrepo

Tim Hetherington eta Sebastian Junger, 2010. 93'

Kamerak, mikrofonoak eta hamabost hilabete Afganistango gerran. Tim Hetherington argazkilaria eta Sebastian Junger kazetariak Vanity Fair aldizkariaren enkargua jaso zuten Korengal haraneko soldaduei elkarrizketa egiteko, eta denbora tarte horretan infanteria aeronautikako erregimentuko B konpainiaren bigarren pelotoian egon ziren. Gerra-kronika bat egiten dute, nolakoa den bizitza gerran, borrokak, etenaldiak, beldurrak, kamerara begiradak, adiskidetasuna, aitorpenak, urruti daudenei gutunak, kontraesanak, gerraren absurdoa, errealak eta ulertezinaren inguruko beldurrak eta galderak.

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Azaroak 14, osteguna

10:00 - 14:00 Tailerra

Philippe Artières-ek zuzenduta.

Parte hartzeko aurrez izena eman 943453526 telefonoan edo e-mail honetan: cristinaenea@donostia.org

Non: Tabakalera



### 3. saioa

2013ko azaroak 14 eta 15

## Historias de Oriente Medio

Catherine David

Aurreiritzi kolonialek zehazten dute oraindik ere Mendebaldean mundu arabiarraren inguruan dagoen pertzepzioa. Mendebaldeko ikuspuntutik mundu arabiarra zerbait itxia eta homogeen gisa ulertzeko joera dago, eta errealtate kultural eta egoera sozial ezberdinak integratzen dituela ahaztu egiten da. Arabiarren kontrako mespretxua XVII. mendetik dator, Europako herrialdeetan, mundu arabiarra "Erdi Aro" antzekoan dagoela eta bere kabuz bertatik irteteko gai ez dela dioen diskurtsoa eratzen hasi zenean. Gizarte arabiarra modernizatzeko ahaleginak izan ziren prozesu historiko horien gutxiespena, Europako herrialdeetan oso finkatuta dauden bi arrazoiketa okerren ondorioa da. Alde batetik, mendebaldeko modernitatea ez bezalakoa dena, ez da modernitatea. Bestetik, modernitatea fenomeno homogeen eta lineal gisa ulertzea, leku guztietan patroi bera jarraitu behar duena.

Iritzi menderatzaileek eta komunikabideek mundu arabiarraren irudia hedatzen jarraitzen dute egunerokotasun politikoaren biolentzia

nabarmenduz, nabardurarik eta testuinguru eta historia luzearen analisi seriorik egin gabe. Aldiz, Eric Baudelaire eta Emmanuelle Demoris-ek pelikulek, oso modu diferentean, historia eta gizarte arabiar garaikideen konplexutasunean sartzen gaituzte. Eric Baudelaire-k, Libanon Japoniako armada Gorriko militante japoniar baten alabaren biografia "negatiboarekin", gutxi entzun den Libanoko 70. hamarkadako mugimendu erradikal armatuen gertaera bat gogoratzen du. Demoris-en *Mafrouza* épopée dokumental bat da; Mafrouza, espekulazioaren mehatxupean dauden Alejandriako (Egipto) auzo pobre bateko bizilagunen patua eta bizitza kontatzen dizkigu.

### Catherine David

Hizkuntzalaritza, Literatura eta Artearen Historia ikasi zituen Sorbonne-ko Unibertsitatean eta Parisko École du Louvre-n. 1982tik 1990era arte Centre Georges Pompidou arte modernoko Museoko kontserbatzailea izan zen, eta 1990etik 1994ra arte, Galerie Nationale du Jeu de Paume-koa, biak Parisen. Bertan hainbat erakusketa monografiko eta kolektibo antolatu zituen: *Reinhard Mucha*, *Passages de l'image*; *Stan Douglas: Monodramas and Television Spots*; *Marcel Broodthaers*; *Hélio Oiticica*; *Eva Hesse*; *Jeff Wall eta Chantal Ackerman*; *D'Est*. 1994tik 1997ra arte Kassel-eko (Alemania) X. documenta-ko zuzendari artistikoa izan zen, eta 1998az geroztik, *Representaciones árabes contemporáneas* epe luzeko proiektuko zuzendaria da, Bartzelonako Antoni Tàpies Fundazioak hasitakoa. 2000. urtean, *The State of Things* antolatu zuen Berlingo KW Institute for Contemporary Art-erako. 2002tik 2004ra arte Rotterdam-eko Witte de With-eko zuzendaria izan zen.

## 3. saioa

2013ko azaroak 14 eta 15

Azaroak 14, osteguna

19:00 Hitzaldia

Historias de Oriente Medio

Catherine David

20:00 Proiektzioa

The anabasis of May and Fusako Shigenobu, Masao Adachi and 27 years without images

de Erik Baudelaire, 2011, 66'

Zeintzuk dira May eta Fusako Shigenobu? Fusakok -hainbat ekintza terroristatan parte hartu duen Japoniako Armada Gorriko ezker muturreko talde bateko buruak- ia 30 urte eman ditu Beiruten ezkatatuta. Bere alaba May, Libanon jaioa, ama 2000. urtean atxilotu eta gero, Japonia ezagutu zuenerako 27 urte zituen. Eta Masao Adachi? Gidoilari eta zinemagile aktibista erradikala, borroka armatuarekin eta Palestinako kausarekin konprometitutakoa, bere sorterrira bidali aurretik, Libanon hainbat hamarkada eman zituen ezkutuan. Film zuzendari modura jardun zuen urteetan, 'paisaiaren teoria' baten bultzatzaileetako bat izan zen - fukeiron: paisaiak filmatzean, Adachik sistema politikoa babestu eta iraunaraztea eragiten duten opresio egiturak ezagutzera ematea bilatzen zuen. Anabasia? Xenophonen atzetik, etxerako bidean noraezean egindako bidaia aldrebesei emandako izena.

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Azaroak 15, ostirala

10:00 - 14:00 Tailerra

Catherine David-ek zuzenduta.

Parte hartzeko aurrez izena eman 943453526 telefonoan edo e-mail honetan: cristinaenea@donostia.org

Non: Tabakalera

## 4. saioa

2013ko azaroak 15

# Giza izaera eta egoera aro nuklearrean: terra incognita

Elena Martínez Rubio

XXgarren mendeaz geroztik gizakiek beraiek sortutako ekoizkin sofistikatu txikitzaileei zor zaizkio hondamen masiboak, ez izurritei ezta ordura arte eramandako gerra-mota bati. Gizadiak badu orain bere burua desagerarrazteko aukera.

Izan ere, bigarren munduko gerrako gertakizunek (ez gogoeten arloko aldaketek eta bilakaerak) itzultzerik ez duen eten edo haustura bat eragin zuten pentsamenduaren tradizioaren baitan. Tradizio filosofikoari loturarik gabe begiratzeko abagune paregabea, Hannah Arendten iritziz. Halaber, hauskinen artean bilatzeko halabeharra eta galzoria. Günther Andersen ustez berriz, gure bizialdia indar nuklearraren mehatxupean eraman behar izatea *terra incognita* da. Indar nuklearrak ultimatum moduko bat dakar berekin-eta. Giza munduaren iraupena kolokan dago, ez da honezkerok esan gabe doan zerbait, aurreko pentsalarientzat guztientzat izan zen bezalaxe.

Hiroshima, Auschwitz, Txernobyl, Fukushima... eta gero, artea egingarria dela frogatu da bestalde, Theodor Adornok kontrakoa sinestu bazuen ere. Baina Paul Celanen "Goizeko esne beltza"-k ez al ditu kontzentrazio esparruak eramangarriago egin, eta hitzen edertasunaren bidez orduko krimenen zirrarra gudan nolabait moteldu? Horrelakorik sekula errepikatu ez dadin lagungarri ote da

artea? Nola adierazten eta proiektatzen ditu egun zinemagintzak istripu nuklearretako oinazearen gune itsua eta errotikako izua? Alexander Klugek, ikuspegi ironikoa kontzientzia esnarazteko baliagarria izan daitekeela sinesten du, ikusleok atsekabe hutsa saihesteko joera dugulako. Ezin zaigu beraz begien aurrean ezbeharraren arkitektura eta eszenatokia baino jarri. Erroka zaila txatar pilaketa lazarriak irudien adierazpide nagusi diren gure garaian.

Hala eta guztiz ere, gizaki mota berri baten aurrean egon gintezke. Baliteke, belaunaldiz belaunaldi kaiolan hazitako hark askatasunik nahi ez izatea. Bere buruaren jabe izatearekin ametsik ez egitea. Menpekotasuna besterik gabe onartzea. Ongiaren eta gaizkiaren bereizteko irizpiderik ezean, bere ekintzek sorrarazitako ondorio eta kalte ikaragarriak irudikatzen gaitu ez izatea... Areago, minarekiko harreman zuzena eragozten dioten tresna tekniko mirestuak baliatuz jokatzeko duenetan.

## Elena Martínez Rubio

Euskara-Alemana/Alemana-Euskara (Elkar, 2006. Bigarren edizioa, 2009) hiztegiaren egilea da. *Egin, Gara, Uztaro, Ezpala, Larrun, Geu, Senz* edota *Jakin*-eko kolaboratzailea ehun artikulu baino gehiagorekin. Filosofian doktorea Madrileko Unibertsitate Autonomoan Hannah Arendt-i buruzko tesiarekin. Filosofia irakaslea EHU-n. Aleman eta ingelesez euskara eta gaztelarera itzultzailea (Hannah Arendt, Günter Anders, Agustín García Calvo, Kant). Beste argitalpen batzuk: "*Hannah Arendt: Un pensamiento a la intemperie*", "*Hannah Arendt: La historia, relato de infinitos comienzos y ningún final*" (beste egile batzuekin batera). Literaturan: "*De noche a noche*". Poesia: Pasaia Lehiaketako 1. Saria (2009) "*Vivamos a la vuelta de la esquina*". Mungiako Lauaxeta Lehiaketako 2. Saria (2008).

## 4. saioa

2013ko azaroak 15

19:00 Hitzaldia

Gizakia eta haren berezitasunak aro nuklearrean: terra incognita

Elena Martínez Rubio

20:00h Proiektzioa

Cartas de un hombre muerto

Konstantin Lopuschanski, 1987. 88'

Gizakiaren akats batek gerra nuklearra eragiten du. Horrela hasten da dena. Horrela amai daiteke dena. Errusiako zientzia-fikziozko film honek apokalipsi ondoko etorkizuna irudikatzen du, non erradioaktibitateak lurralde bat banantzen duen: lurpean, kutsatuak; bunkerretan, "garbiak".

Pelikulako pertsonaia nagusiak, historia-museoan babestuta dagoen fisikariak, gutunak idazten dizkio hondamendian hil zaion semeari, gertu dagoen munduaren amaierara iristeko zer gertatu den azaltzeko.

1986. urtean, pelikularen estreinaldia baino hilabete batzuk lehenago, Chernobil eta bertoko erreaktoreek eztanda egin eta 7 bat markatu zuten, arriskurik handiena hondamendi nuklearen nazioarteko eskalan. 2011n, Fukushimako zentralak (Japonia) 7 bat markatu zuen berriz ere arriskugarritasun-eskalan. Batzuetan, zientzia-fikzioa zientzia bihurtzen da, ongietorri aro atomikora.

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea





## Ekintza paraleloak

2013ko azaroaren 12tik 16ra arte

# Mafrouza

3. saioaren osagarri eta hedadura gisa Emmanuelle Demoris-en Mafrouza proiektatuko da, modu autonomoan ikus daitezkeen 5 ataletako pelikula dokumentala.

Emanaldiak goizez eta arratsaldez  
(10.00-12.00 / 16.00-18.00 gutxi gorabehera)

Azaroak 12, asteartea

**MAFROUZA – OH NIGHT ! (1. zatia – 2:18)**

Azaroak 13, asteazkena

**MAFROUZA/HEART (2. zatia – 2:34)**

Azaroak 14, osteguna

**WHAT IS TO BE DONE? (3. zatia – 2:32)**

Azaroak 15, ostirala

**THE HAND OF THE BUTTERFLY**

**(4. zatia – 2:22)**

Azaroak 16, larunbata

**THE ART OF SPEAKING (5. zatia – 2:35)**

Non: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Mafrouza 5 zati dituen pelikula da; Emmanuelle Demoris-ek filmatu zuen Mafrouza-n, Alejandrian nekropoli grekoerromatar baten gainean eraikitako auzo txabolista batean eman zituen bi urteetan. Mafrouzak bertako hainbat bizilagunen elkartzea eta patua kontatzen ditu, kronika polifonikoan. Mafrouzan bizitza gogorra bada ere, bertakoek indarrez eta dotoreziaz eusten dute. Adel eta Ghada zoriontasuna bilatzen duen bikotea gaztea da; Mohamed Khattab dendari eta xeke humanista; Hassan askatasuna maite duen abeslari ganberroa; Abu Hosny urak hartutako etxean bizi den zahar bakartia; Om Bassiouni nekazaria eta bere labe-ogia; chenaboutarrak, kinkilari-familia, eta Jihad gazte borrokalaria: guztiek adierazi eta kontatzen dute beren erresistentzia, auzoa askatasun- eta bizitasun-espazioa bihurtuz.

Mafrouzak bere denbora hartzen du mundu horretako konplexutasunetan sartu eta horiek biltzeko, baina baita, bere istorioen bitartez, Mafrouzako bizilagunak eta horiek grabatzera joandako emakumearen arteko topaketa kontatzeko ere. Elkartze horrek galdera zinematografikoak planteatzen ditu eta besteek begiratzeko dugun moduz ere galdegiten digu. Mafrouzak pobreak, Ekialdea edo Islam-aren inguruko kliseak zalantzan jartzen ditu, baina aldi berean gure begiratu eta bizitzeko moduaren (Europar edo beste leku batzuetan) inguruko galdeketa ere bada.

## Ekintza paraleloak

2013ko azaroak 16, larunbata

# Korridoreak: itsu-itsuan lurraldean barrena

Irteera Urumeatik Ibon Salaberria eta Koldo Telleriarekin\*

Badira muga ikusezinak, non hiriak, bere errentagarritasunarekin arduragabe, hondakinak botatzen dituen. Hiria ez den lurraldea gainditu beharreko espazio gisa aurkezten da, merkantzien zirkulazio azeleratutik zeharkatu beharreko espazio gisa, "korridore" moduan definitua gera dadin, lurralde-pasillo moduan, non bertoko bihurguneetan harresi-hiriaren, esklusio-eremuaren eta aurrez dagoenarekin talka egiten duten gobernu-eredu zatiak sakabanatzen dituen. Proposatutako ibilbidea Urumea ibaian gora joango da, anomalia horiek bilatu nahian.

Ibon Salaberria eta Koldo Telleria arkitektoak dira eta irakasleak Donostiako Arkitektura Eskolan.

**Parte hartzeko aurrez izena eman 943453526 telefonoan edo e-mail honetan: [cristinaenea@donostia.org](mailto:cristinaenea@donostia.org)**

**Ordua: 10.00**

**Non: Tabakalera aurrean.**

\*Irteera hau Ibon Salaberriak eta Koldo Telleriak hiriak bere mugekin ezartzen dituen harreman gatazkatsuen inguruan Arkitektura Eskolan egingo duten tailerraren emaitza da.



## Hitzaldiak / proiektzioak

[Cristina Enea Fundazioa](#)

Mandasko Dukearen pasealekua, 66.

20012 Donostia-San Sebastián

Tel: 943453526 - 943471414

[cristinaenea@donostia.org](mailto:cristinaenea@donostia.org)

## Tailerrak

[Tabakalera](#)

Mandasko Dukearen pasealekua, 32

20012 Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa

Zuzendaritza:



Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea  
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián

Patronoak:



Laguntzaileak:

